

**DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUn BALIO ANITZEKO GIDARI-KOBRATZAILEAREN LAN POLTSA SORTZEKO HAUTATZE PROZESUAREN DEIALDIA.**

- **PROBA PROFESIONAL PRAKTIKOAREN FASEA EGITEKO DEIALDIA (Kanpo deialdia eta Barne Sustapena).**

**Lehena. - Donostiako Tranbia Konpainia, SAU telefonoz harremanetan jarriko da** urriaren 24an egindako probetan **GAI kalifikazioa izan zuten izangaiekin**, 2020ko azaroaren 6an argitaratutako behin betiko emaitzen arabera, **Proba Profesional Praktikoa egitera joan daitezten.**

Izangaiei dei egiteko kontaktuak pixkanaka egingo dira, ohar hau argitaratzen den egun beretik hasita.

Deialdiaren jarduera ordena “B” letraz hasten den lehen deitura duten izangaiek hasiko dute, Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzaren 2020ko uztailaren 21eko Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

Izangaiei dei bakarra egingo zaie.

Proben egutegia 2020ko azaroaren 30etik abenduaren 18ra bitarte luzatuko da.

Probak egiteko erabiliko diren oinarritzko ibilbideak gutxienez bi egun baliodun lehenago argitaratuko dira (hau da, 2020ko azaroaren 26an, osteguna).

Hautagaiek NAN, pasaportearen edo gidabaimena erakutsi beharko dute. Dokumentu horietako bat ez badute aurkezten, ezin izango dute proba egin.

**Bigarren.- Antolakuntza, segurtasun eta higiene neurriak:**

- COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak edo COVID-19 diagnostikatu izanaren ondorioz etxean bakartuta daudenak edo COVID-19 duen pertsona batekin harreman estua izan dutelako etxean koarentenan daudenak ezin izango dira probara joan.

Probaren formatua dela eta (bakarka egingo da proba), bat-bateko eta ezinbesteko kasuetan, Hautaketa Batzordeak izangaien eskaerak aztertuko ditu, eta antolakuntza aukerek uzten duten neurrian erantzungo die, betiere proba horretarako ezarritako egutegiaren esparruan.

- Izangaiek erantzukizuneko adierazpena bete eta aurkeztu beharko dute, jakinaren gainean daudela eta indarrean dauden segurtasun, higie eta osasun publikoko neurriak onartzen dituztela frogatzeko. Adierazpen hori, proba egunean emango zaie izangaiei.
- Halaber, izangaiek egun berean emango zaizkien proba egiteko jarraibideak eta arauak irakurri eta, hala badagokio, onartu beharko dituzte.
- Proba egiteko nahitaezkoa da musukoa erabiltzea.
- Azterketa txanda amaitu ondoren, eta hurrengoa hasi baino lehen, gunea garbitu eta desinfektatu egingo da.
- Izangaiek une oro bete beharko dituzte laguntzaileek eta Hautaketa Batzordeak emandako jarraibideak, bai eta DBUSen instalazioetako arauak ere.
- Indarrean dauden mugikortasun neurrien arabera, proba egitera joateko deialdiaren ziurtagiri izenduna bidaliko zaie halakorik eskatzen duten izangaiei. Interesdunek proba egiteko deia egiten zaienean egin beharko dute eskaera.

**Hautaketa Prozesuaren garapenarekin loturik sortzen den informazio guztia jakinarazteko, ondoko bide ofizial hauetan argitaratuko da:**

- **Web orria:** <https://www.dbus.eus/beste-zerbitzu-batzuk/pertsonalaren-aukeraketa/>
- Donostiako Tranbia Konpainiako iragarki taula (Fernando Sasiain 7, Donostia)
- Barne sustapenaren txandaren kasuan, [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus) orrian (langilearen atarian, Barne Deialdiaren atalean).

Stua.: Hautaketa Batzordea  
Donostia, 2020ko azaroak 19